ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN, GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzen (2023-2025 ekitaldiak) deialdiaren oinarriak aldatzea

2024ko azaroaren 22an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2023-2025 ekitaldietan Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzen deialdiaren oinarriak aldatzea, baldintza hauen arabera:

Lehena. Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzen (2023-2025 ekitaldiak) deialdiaren oinarrien aldaketa onestea; oinarri horiek Tokiko Gobernu Batzar honek onetsi zituen 2023ko maiatzaren 26an, eta ALHAOn argitaratu ziren (70. zk., 2023ko ekainaren 16koa). Aldaketak eragina izango du 4., 14., 37. eta 38. artikuluetan:

4. artikulua

Paragrafo hau: dirulaguntzen eskaria exekutatzeko gehieneko aldia oinarri hauetan ezarrita dagoena izango da, eta esku-hartzeak gehienez ere 2025eko urriaren 30erako gauzatu beharko dira. Honela idatzita geratuko da: dirulaguntzen eskaria exekutatzeko gehieneko aldia oinarri hauetan ezarrita dagoena izango da, eta esku-hartzeak gehienez ere 2025eko abenduaren 31rako gauzatu beharko dira.

14. artikulua

Paragrafo hau: okupatzaileei aldi baterako ostatua emateko jarduketak, laguntza soziala eta beharrezkoak diren jarduketei lotutako antzeko beste batzuk. Honela idatzita geratuko da: okupatzaileei aldi baterako ostatua emateko jarduketak, laguntza soziala eta beharrezkoak diren jarduketei lotutako antzeko beste batzuk (gehienez ere 110,00 euro eguneko, bizikidetza-unitate bakoitzerako).

Honela idatzita geratzen da 37. artikulua: 37. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzeko sekuentzia. Dirulaguntzen esleipenaren ebazpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarraren aginduz edo zinegotzi eskudunaren aginduz egingo dira ordainketak, hurrengo sekuentziaren eta prozeduraren arabera:

a) Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzen esleipenaren ebazpenarekin, lehenengo ordainketa bat egingo da: komunitateen laguntzen zenbatekoaren ehuneko 45 eta zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsona fisikoen edo bizikidetza-unitateen laguntza gehigarrien ehuneko 50. Ordainketa dagokion ordainketa-eskaera aurkeztu ondoren egingo da, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera, eta horrekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— 7. artikuluan aipatzen dena. Dirulaguntzen azken hartzaileen betebeharrak.

— 34. artikuluan aipatzen dena. Dirulaguntzaren eskaerari laguntzeko dokumentazioa.

— Eraikineko liburua egin izanaren faktura, egungo egoeran eta birgaituta dauden eraikineko energia-efizientziaren ziurtagiriak, berriztagarria ez den lehen mailako energia-kontsumoaren murrizketaren ehunekoaren berariazko adierazpenarekin.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Obra gauzatzeko ardura duen enpresarekin edo enpresekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia, dirulaguntza jaso duten obra guztiak gauzatzea bermatzen dutenak.

— Obraren hasierako aktaren kopia, jabeen komunitateko presidenteak, eraikuntza-enpresako ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatuta.

b) Bigarren ordainketa: komunitateen laguntzen zenbatekoaren ehuneko 15 eta zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonen laguntzen zenbatekoaren ehuneko 25, dagokion ordainketa-eskaera eskatu ondoren, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera, eta dokumentu hau gehituko zaio:

— Obraren exekuzioaren zenbatekoaren ehuneko 50 gutxienez barne hartzen duten fakturak. Fakturekin batera zuzendaritza fakultatiboak igorritako dagokion obra-ziurtagiria aurkeztuko da.

c) Hirugarren ordainketa: komunitateen laguntzen zenbatekoaren ehuneko 10 eta zaurgarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonen laguntzen zenbatekoaren ehuneko 25, dagokion ordainketa-eskaera eskatu ondoren, horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera, eta dokumentu hau gehituko zaio:

— Obraren exekuzioaren zenbatekoaren ehuneko 75 gutxienez barne hartzen duten fakturak. Fakturekin batera zuzendaritza fakultatiboak igorritako dagokion obra-ziurtagiria aurkeztuko da.

d) Komunitateen laguntzaren gainerako ehuneko 30 justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo atalean adierazten denaren arabera. Ez da inolaz ere fase bakoitzean justifikatutako kopurua baino altuagorik ordainduko.

38. artikulua

Paragrafo hau: dirulaguntza jasotzeko xedea bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea (onuradunen partetik) bi hilabetekoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako iraupen-datatik abiatuta, eta ezingo da inolaz ere 2025eko urriaren 31tik pasa. Honela idatzita geratuko da: dirulaguntza jasotzeko xedea bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea (onuradunen partetik) bi hilabetekoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako iraupen-datatik abiatuta, eta ezingo da inolaz ere 2025eko abenduaren 31tik pasa.

Bigarrena. Jabeen komunitateei berriz ere jakinaraztea, laguntzen deialdiaren oinarrien 23. artikuluak xedatzen duen bezala, komunitateek kontu korronte bat irekiko dutela finantza-erakunde batean esklusiboki beren eraikinaren birgaitze efizientera bideratuko dena; kontu hori onuradunek jasotzen dituzten laguntzen sarrera-kontua izango da —bai beren komunitate edo mankomunitateen laguntzentzat, bai pertsona fisikoen edo bizikidetza-unitateen laguntzentzat—.

Hirugarrena. Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari komunikatzea deialdiaren testuaren aldaketa eta galdatzen duen informazioa ematea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikuluarekin bat etorriz.

Laugarrena. Zaramaga auzoko bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntzen (2023-2025 ekitaldiak) deialdiaren aldaketa argitaratzea ALHAOn, Udalaren webgunean eta Ensanche 21 Zabalgunea SAren webgunean.

Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, lege horren araudia onartzen duen 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak eta dirulaguntzen udal-ordenantzak araututakoaren arabera, aldaketa hori argitaratu da ezagutza orokorrerako.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 28an

Hiri Ereduaren, Hirigintzaren, Etxebizitzaren, Garbiketaren eta Ingurumenaren Saileko Zerbitzu Juridiko Administratiboko burua
EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:05 Z